

ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA TRAMITAZIO ARRUNTEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA. ERREGULAZIO BATERATUAREN MENPEKO KONTRATUA.

ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK)

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua izango da Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) ematea. Kontratu horren helburu da ere enplegua sustatzea langabetuen edo bazterkerian erortzeko arriskuan daudenen artean, hori guztiori, lan baldintza duinak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea bermatuko duten metodo eta praktiken bitartez, betiere, baldintza teknikoan agirian zehaztutako baldintzetan, baldintza agiri honetakoetan, eta kontratuaren esleipendunak egindako eskaintzan jasotakoetan.

C.P.V. kodea: 90611000-3

2. EXEKUZIO EPEA.

Zerbitzua emateko epea BI urtekoa izango da, kontratua sinatu ondorengo egun baliodunetik kontatzen hasita, eta, alde biak ados jarriz gero eta berariaz jasota, URTEBETEZ luzatu ahal izango da beste bi aldiz. Kontratuaren iraunaldia guztira ezingo da LAU urte baino handiagoa izan.

Aipatutako epe hori igaroz gero, kontratistak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Udalak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa lehen urterako, BEZ gabe, 149.804,53 €-koa izango da, lehiatzaileek beherantz hobetu ahal izango dutena.

Kontratu osorako kalkulaturako aurrekontua, luzapenak barne, horrelakorik egongo balitz, 606.901,54 €-koa da, BEZ gabe.

Kontratu esleitu ondoren, prezioan sartuta egongo dira kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.

4. KREDITUA IZATEAREN BALDINTZA ETENGARRIA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bategineko 110.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu hau esleituko da baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago 2014ko aurrekontuan kontratutik sortzen diren obligazioei aurre egiteko.

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

5. ORDAINTZEKO MODUA

DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: Benetan emandako derrigorrezko zerbitzuak ordainduko dira aldizkako ziurtagirien bidez, hilabeteko izaerakoak, enpresa esleipendunak eginak, aldi horretan egindako zerbitzuaren arabera, eta ziurtagiri hori gainbegiratu eta kontrastatuko du zerbitzuaren ardura duen udal teknikariak, eta hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

AUKERAKO ZERBITZUAK: Benetan emandako aukerako zerbitzuak ordainduko dira Udalak zerbitzua egiteko eskatu eta gero, eta zerbitzua egin eta dagokion faktura aurkeztutakoan. Faktura hori zerbitzuaren ardura du(t)en udal teknikariak/ek gainbegiratu eta kontrastatuko du(te) eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Faktura onartu eta gero, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuko (Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua) 216. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira kontratua esleitzen denetik urte bat igarotakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 89tik 94ra arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren bigarren urtetik, kontratua berraztertzeke aplikatu beharreko formula honakoa izango da: aurreko urte naturaleko estatuko Kontsumorako Prezioen Indizean izandako aldaketaren % 85a.

7. BERMEAK

Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea:

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Bermea esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea hamar egun balioudunekoa izango da eskaintza ekonomiko onena aurkeztutako lehiatzaileak errekerimendua jasotzen duen biharamunetik kontatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 96.1 artikuluan ezarritako edozein modutan egin ahal izango da, kontuan izanik eskudirutan jarri nahi izanez gero Eskoriatzako Udalaren kontu korronteren batean sartu beharko dela dirua.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA.

8. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo zaio eskaintza onenari.

Prozedura irekia esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek izango dira garrantzi gehienekotik gutxienera eta emandako haztapenagatik zerrendatuta:

1- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 51 puntu (C gutun-azalean sartu beharrekoa).

a) Derrigorrezko zerbitzuen eskaintza ekonomikoa: 45 puntu

Puntuazio altuena emango zaio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari, eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lehiatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

$$Lp = Em/Le \times 45$$

Non-eta:

Lp: Lehiatzailearen puntuazioa

Em: Eskaintza merkeena

Le: Lehiatzailearen eskaintza

Eskaintza bat ezohikoa edo neurritz kanpoko delako adieraziko da, baldin beraren beharpen portzentajeak 10 puntu edo gehiagoz gainditzen badu lehiaketako prezioa.

Egoera hori ez da izango baztertzeko arrazoia, betiere lehiatzaileak nahikoa justifikatzen badu bere proposamena bideragarria dela (egoki iritzitako kalkuluak eta argudioak aurkeztuz).

b) Aukerako zerbitzuen eskaintza ekonomikoa: 6 puntu

Puntuazio altuena emango zaio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lehiatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

$$Lp = Em/Le \times 6$$

Non-eta:

Lp: Lehiatzailearen puntuazioa

Em: Eskaintza merkeena

Le: Lehiatzailearen eskaintza

2.- Eman beharreko zerbitzuaren ezaugarri teknikoak: 40 puntu (B gutun-azalean sartu beharrekoa).

Atal honetan 18 puntu lortzen ez duten enpresa lizitatuaren memoria teknikoak kontratazio prozeduratik kanpo geratuko dira, eta ez dira irekiko haien proposamen ekonomikoak.

a) Langileak: 12 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Lan bakoitzerako behar diren langileei buruzko datuak, giza baliabideak eta koadroak justifikatzeko kalkuluak zehaztea.
 - Zerbitzuan erabili daitezkeen teknikariak.
 - Langile eta makinen arteko erlazioa, langile gutxien mekanizazio gehienarekin lehenetsiz.
 - Administrazio eta antolaketako langileen dedikazioa eta lanen kontrola (arduraduna).
-
- Kontratuaren exekuzioari lotutako plantillan emakumeen ordezkariak orekatua. Plantilla orekatua izango da emakumeen ordezkariak % 40a edo handiagoa duena.
 - Kontratuaren exekuzioari lotutako aginte postuetan emakumeek % 40tik gorako ordezkariak izatea.
-
- Gipuzkoan aplikatzen den arloko lan hitzarmenean aurreikusitako lan baldintzak hobetzea.
 - Kontratua exekutatzen den langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz, langile horiei lan-kontratu mugagabea egiteko konpromisoa hartzea.
 - Kontratua exekutatzen den langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz, gizarteratu eta laneratzeko enpresak araupetzeko legegintzako neurrien gaineko abenduaren 20ko 7/2002 Legeak aipatzen dituen lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako pertsonak kontratatzen konpromisoa hartzea.

b) Makineria: 10 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Makinen zerrenda, ezaugarri teknikoak, marka, zerbitzuari atxikitako makina guztien modelo komertziala, xehetasunak eta makinen argazkiak, makinen inbertsio, amortizazio eta ustiapen kosteak.
 - Bereziki, kontuan hartuko da egokitasun teknikoa, ekipo bat lan jakin bati hobeto egokitzea eta sistemak eta operazioak zerbitzua egiten den eremuaren ezaugarriei egokitzea.
 - Sarituko da makineria kopuru handiena, ahalik eta mekanizaziorik handienaz eta kontratuan erabilera eraginkorreko errendimendu altuak.
 - Mantentze plana eta horren deskribapena.
-
- Makineriaren egokitasuna ingurumenaren errespetuarekiko: energia alternatiboak, ibilgailuek eta makinek sortutako zarataren murrizketa eraginkorra, erregai fosilek atmosferara gutxiago isurtzea, ur kontsumoa gutxitzea (berrerabilera, aurrezteak), eta abar. Ingurumenarekiko egokitasuna behar bezala frogatzen denean bakarrik baloratuko da.

c) Instalazioak: 4 puntu. Zerbitzuaren menpe jarritako instalazioen ezaugarri orokorrak baloratuko dira.

d) Antolaketa orokorra: 7 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Baldintza agiriari egokitutako antolaketa proiektua egin beharreko lanei eta horien maiztasunei, errendimenduei, lan ekipoei (pertsonen eta makinen arteko konbinazio egokia) eta orduen banaketei dagokienez.
- Urte sasoiko lanen edo lan puntualen programazioa (hosto erorketa, jaiak, urmaelak garbitzea, paperontziak, eskoletako jolastokiak...)
- Planoak aurkeztea.

e) Kontrol sistemak: 7 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Kontrol sistemak proposatzea, zerbitzuaren hasierako planifikazioaren kontrola, zerbitzuaren kalitate kontrolak.
- Zerbitzua bete eta antolatzeko baliabideak (lan orriak).

3.- Baldintza teknikoan proposatutako hobekuntzak: 7 puntu. (B gutun-azalean sartu beharrekoa).

Udalak interesgarritzat jotako baldintza agiriko gutxieneko baldintzei buruz proposatutako gain kosturik gabeko hobekuntzak baloratuko dira bakarrik, betiere, kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egonez gero. Hori guztiori, enpresa kontratistak bere eskaintzan proposatutako neurri guztiak betetzearen kaltetan gabe.

- Lehiatzaile bakoitzak berak proposatutako hobekuntza bakoitza azaltzeko memoria bat aurkeztu beharko du. Bertan, horien garrantzia eta zabalkundea ulertzeko beste zehaztuta, exekuzio epea edo plana edo egutegia adierazi beharko du, kalkulaturako aurrekontu xehatua eta kontuan hartu, aztertu eta baloratu beharreko gainontzeko gorabeherak.
- Ez dira baloratuko hobekuntzat aurkeztutakoak, horiek baldintza agirian eskatutako kontzeptuei badagozkie.
- Proposatutako jarduerak benetako kostuarekiko edo epearekiko dirutan aurreztuko lukeenaren edo murriztuko lukeen epearen arabera (egiaztatuta) baloratuko dira hobekuntzak.

4.- Ingurumen hobekuntzak: 2 puntu. (B gutun-azalean sartu beharrekoa).

Udalak interesgarritzat jotako baldintza agiriko gutxieneko baldintzei buruz proposatutako gain kosturik gabeko ingurumen hobekuntzak baloratuko dira bakarrik, betiere, kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egonez gero. Hori guztiori, enpresa kontratistak bere eskaintzan proposatutako neurri guztiak betetzearen kaltetan gabe.

Lehiatzaile bakoitzak berak proposatutako hobekuntza bakoitza azaltzeko memoria bat aurkeztu beharko du. Bertan, horien garrantzia eta zabalkundea ulertzeko beste zehaztuta, exekuzio epea edo plana edo egutegia adierazi beharko du, kalkulaturako aurrekontu xehatua eta kontuan hartu, aztertu eta baloratu beharreko gainontzeko gorabeherak.

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 10. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Kontratuaren xedearekin erlazio zuzena duten jarduerak egitea izan beharko da lizitatuzaileen helburua, eta hori gauzatzeko giza baliabideak eta beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak izan beharko dituzte.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Eskoriatzako Udaleko Obra eta Zerbitzuak Departamenduan aztertu ahal izango da, bulego orduetan, lanegun guztietan (zapatuetan izan ezik), **Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean** lehiaketaren iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Era berean, lehiaketa hau Udalaren kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta baldintza agiria eta dokumentazio osagarria bertan eskuratu ahal izango dira.

Kontratazioa sustatzen duen arloarekin harremanetan jartzeko:

OBRA ETA ZERBITZUAK
Fernando Eskoriatza plaza z/g. 20540 Eskoriatza.
E-posta: obraetazerbitzuak@eskoriatza.net

727702350-626716944

Kontratatzailearen profila:
www.eskoriatza.org

Kontratazio prozesuan parte hartzeko **proposamenak Udal Erregistroan aurkeztu beharko dira**, lehen esandako ordutegian. Iragarkia **Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera** bidaltzen den biharamunean hasiko da epea, eta irailaren 12an amaituko da. Bidalketa eguna Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zehaztuko da.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen entregatu zirela jaso. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, ez dira onartuko epea amaitu eta gero kontratazio mahaiari jasotako eskaintzak. Hala ere, adierazitako egunetik 10 egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

Lehiatzaileek hiru gutun-azal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Gutun-azal bakoitzaren barruan honako hau idatziko da: **ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PROZEDURA IREKI BIDEZ PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA**".

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Gutun-azalak izenpetuta egongo dira.

1) "A" gutun-azalaren azpiztitulua hauxe izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:

1.a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak.

Nortasuna egiaztatzeko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiria, lehiatzaileak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate baten ordezkari jardunez gero, Nortasun Agiria eta ahalordetze eskritura. Agiriak kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordea askietsiko da.

- Lizitzailea pertsona juridikoa denean, eraketa eskritura edo aldaketa, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko kodea, inskribatzean derrigorrezkoa denean aplikatu dakioken merkataritza legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, egiaztatu behar dute inskribaturik daudela lanbide edo merkataritza erregistroan, baldintza hori eskatzen badu bere Estatuko legeriak.

- Hainbat enpresek aldi baterako enpresa-batasuna eratuta jotzen badute lehiaketara, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestalde, aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko du proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

1.b) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko.

1.c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela agertzeko.

1.d) Eskatzen den enpresa sailkapenaren ziurtagiria.

Kontratatzen ondorengo sailkapenak egiaztatzeko dokumentuak:

U Taldea, 1 azpitaldea, B kategoria

1.e) Kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako edozein ordenako epaitegi eta auzitegien menpekotasuna onartzeko aitorpena aurkeztu beharko dute atzerriko enpresek, beraien nazioko epaitegiei uko egiten dietela garbi adieraziz.

1.f) Helbide elektronikoa jakinerazpenak eta errekerimenduak egiteko, argibideak eta agiri osagarriak eskatzeko, edota zuzendu daitezkeen akatsen berri emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lehiatzaileak erregistroko letratu arduradunak egindako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 1.a), 1.b) eta 1.c) ataletan eskatzen diren agirien ordez.

*** Aurkeztu beharreko agiri horiek guztiek jatorrizkoak izan beharko dira, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.**

2) "B" kartazalak azpтитulu hau izango du: "MEMORIA TEKNIKOA", eta agiri hauek izango ditu:

Balio-iritziaren mende dauden esleipen irizpideei buruzko agiriak; zehazki, honako hauek:

a) Memoria teknikoa eta proposatutako hobekuntzak, 8. klausulako 2., 3., 4. eta 5. ataletan ezarritako adjudikazio irizpideak baloratu ahal izan daitezzen.

Inolaz ere ez da sartuko gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoan zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagokien beste edozein datu, horiek guztioriek "C" gutun-azalean sartu behar dira.

Aipatutako datu horietakoren bat "B" gutun-azalean sartzeak enpresa lehiatzailea prozeduratik kanporatzea ekarriko du, eta ez da irekiko bere "C" gutun-azala.

3) "C" gutun-azalaren azpititulua hau izango da: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ESLEIPEN IRIZPIDEAK". Hona hemen "C" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Proposamen ekonomikoa, ondorengo ereduari jarraituz egina:

I ERANSKINA. LEHIATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN EKONOMIKOA EGITEKO EREDUA

Lehiatzailearen datuak (gaitasun juridikoarekin eta jardutekoarekin):

Izen-abizenak:

Helbidea:

Posta kodea :, NAN:, Telefonoa:, posta-elektronikoa:

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak:

Helbidea:

Posta kodea:, NAN edo IFK:, Telefonoa:; posta-elektronikoa:

Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko asmoz Eskoriatzako Udalak egindako gonbidapena jaso dut, eta hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €

- DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: Eskoriatzako kaleak garbitzeko lanak baldintza teknikoen agirian ezarritako maiztasunarekin egiteko proposamen ekonomikoa: € urteko (BEZ gabe), gehi %ko BEZari dagozkion €

a) Kaleak garbitzea.

c) Udal parkeak eta lorategiak garbitzea.

d) Isurbideak, sareak eta gainerakoak.

e) Euri uren kolektoreen eta kutxatilen garbiketa orokorra.

f) Ur beltzen kolektoreen, kolektore mistoen eta kutxatilen garbiketa orokorra.

g) Saneamendu sarean izan daitezkeen ezustekoei aurre egitea.

- h) Hondakin bilketa guneak garbitzea. Zintzilikarioak eta edukiontziak.
- i) Paperontziak garbitu eta hustea.
- j) Olio eta koipe orbanak garbitzea ura presioan botata.
- k) Zuhaitzen txorkoak garbitzea.
- l) Eskailerak, lur azpiko eta bide gaineko pasabideak, eraikin arteko plazatxoak, eraikinen atzealdeak eta abar garbitzea.
- m) Gorotzak eta bestelako hondakinak garbitzea eta kentzea.
- n) Asteroko merkatu gunea garbitzea.
- o) Udal hilerria garbitzea.
- p) Noizbehinkako garbiketak (azokak, topaketak, jaiak, kultur eta kirol ekitaldiak eta abar).
- q) Markesinak, seinaleztapen bertikalak eta gainerako hiri altzariak garbitzea.
- r) Eskoletako jolastokiak garbitzea eta desinfektatzea.
- s) Aldizkako zerbitzuak edota ohiz kanpoko zerbitzuak:
 - . Elurteak eta izozte handiak.
 - . Hosto erorketa.
 - . Larrialdiak.
- t) Aurreko zerbitzuetan sortutako hondakinak garraiatzea eta deuseztatzea.

- **AUKERAKO ZERBITZUAK:** Urteko kostuaren banakako proposamen ekonomikoa ondorengo zerbitzuei buruz:

1. Hiri gune berriak garbitzea.
2. Erdi gunearen garbiketa orokorra.
3. Ur beroaz garbitzea.
4. Pintadak garbitzea eta kartelak kentzea.
5. Graffitiak aurkako tratamendua.

Zerbitzu guztiak baldintza teknikoetan ezarritako moduan egin beharko dira, eta prezioaren barruan gai guztiak sartzen direla ulertu beharko da: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere.

- 2) Baldintza teknikoen agiria, administrazio baldintza partikularren agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditudala; eta neure gain hartu eta ontzat hartzen ditudala oso-osorik.
- 3) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.
- 4) Lan eta zerga arloko legeak eta arauak betetzera behartzen dudala nire burua.

b) 1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak behar bezala beteta.

....., 20....(e)koaren(a)

Izenpea

*** Eskaintzan xehaturik agertu behar da Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga erregulatzen duen araudiaren arabera kontratuari aplikatu dakizkiokeen oinarria eta zenbatekoa adierazita. Eskaintza ez badago xehatuta, kanpoan utziko da.**

Inolaz ere ez da sartuko gutun-azal honetan memoria teknikoa, lan programa edo balio-judizioaren menpeko balorazio egin beharreko esleipen irizpideei dagozkien beste edozein datu, horiek "B" gutun-azalean sartu behar baitira.

Horietao daturen bat "C" gutun-azalean sartzeak dokumentu horiek ez baloratzea ekarriko du, eta beraz, bakarrik balorazio automatikorako irizpideei dagozkien puntuak emango zaizkio.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatu behar ditu.

11. AUKERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartzen.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Joxe Mari Herce

Mahaikideak: Arantxa Iregi, Beñat Herce, Edurne Iturbe, María Pía Urrutia

Idazkaria: Elizabeth Jauregui

Ordezkoak:

Mahaiburuarena: Iñaki Madinabeitia

Mahaikideena: Igor Ezpeleta, Jose Angel Petralanda, Agurtzane Orbegozo

Idazkariarena: Francisco Somé

Mahaia horrela eskatutakoan udal teknikariek ere parte hartu ahal izango dute mahaian aholkularitza lanak egiteko.

13. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa («A» gutun-azala) sailkatuko du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran.

Horretarako, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera idatzia ere jarri behar du kontratazio organoaren iragarki oholean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Egintza horretan bertan Kontratazio Mahaiak **“B” gutun-azalak (Memoria Teknikoa) irekiko ditu**, eta horiek baloratzeko ardura duen organoari bidaliko dizkio, eta azken horrek balorazio txostena itzuli beharko dio proposamen ekonomikoa jende aurrean ireki baino lehen.

Eskaintza ekonomikoak (“C” gutun-azala) ekitaldi publikoan irekiko dira kontratugilearen eskakizunetan eta onartutako enpresa lehiatzaileei egindako jakinarazpenean zehaztuko den lekuan, egunean eta orduan.

Geroago, Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipen proposamena egingo dio kontratua gauzatu behar duen Kontratazioa Organoari.

14. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio mahaiak, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 320.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurkeztu diren proposamenak, akta eta esleipen proposamena bidaliko dizkio kontratazio organoari.

Kontratazio Organoak ahalmena izango du proposamen onenari kontratua esleitzeko -baldintza agiri honetako 8. baldintzan ezarritako irizpideak aplikatuz, proposameneko ekonomia-balioari nahitaez jarraitu beharrik gabe- edo lehiaketa esleitu gabe utzi dela deklaratzeko. Nolanahi ere, ebazpenaren arrazoiak eman behar ditu, lehiaketa esleitzeko irizpideak aipatuz.

Alkateak, Kontratazio Organoak eskuordetuta, errekerimendua egingo dio eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lehiatzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, honako jardun hauek egin ditzan:

- a) Behin betiko bermea jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztea.
- c) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztea.

Esleipena lehen aipatutako hamar eguneko epea amaitu ondorengo 5 egun baliodunetan egingo da, betiere, lehiatzaileak lehen aipatutako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri.

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lehiatzaileari ez bazaio kontratua esleitzen horretarako baldintzak betetzen ez dituelako, deialdi berri bat egin aurretik Administrazioak, eskaintzen sailkapena jarraituz, beste eskaera bat egin diezaioke zerrendako hurrengo enpresa lehiatzaileari edo ondorengoei. Kasu horretan hamar egun balioduneko epea emango zaio enpresari lehen adierazitakoa betetzeko.

Esleipena gehienez ere hiru hilabeteko epean egingo da proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Kontratazio organoak kontratua sinatzeko eskatuko dio enpresa esleipendunari. Kontratua sinatzeko epea ezingo da izan

bost egun baino handiagoa kontratazioari buruzko errekurtsio berezia jartzeko epea bukatzen den biharamunetik kontaktzen hasita, betiere, epe horretan kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada. Berdin jokatuko da errekurtsioa erabakitzeko organo eskudunak etetea jasotzen duenean.

Lehiaketaren eta esleipenaren iragarkien gastuak Udalaren kontura izango dira.

Kontratua esleitu ondoren eta errekurtsioak jartzeko epea amaituta inolako errekurtsorik jarri gabe, **esleipendun izan ez diren enpresa lehiatzaileen "A" eta "B" gutun-azaletako dokumentazioa euren esku geldituko da.** Dokumentazioa euren esku jartzen denetik bi hilabete igaron ondoren, inork ez badu jaso dokumentazio hori, Administrazioak suntsitu ahal izango du lehiaketan parte hartutako enpresek aurkeztutako dokumentazioa.

III- KONTRATUAREN EXEKUZIOA

15. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Kontratua, kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Administrazioak uste badu kolokan dagoela kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea, kontratua behar bezala burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du.

16. KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK (GIZARTE BALDINTZAK)

Kontratu hau exekutatzekeo gizarte izaerako ondorengo exekuzio baldintza bereziak eskatuko dira:

1. Enpresa esleipenduna behartuta dago prestazioa ematerakoan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak hartzera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Neurri horien artean dago, nahitaez, berdintasun plan bat egitea eta aplikatzea, betiere enpresak aurretik halakorik ez badu, 250 langile baino gutxiago dituelako eta, beraz, horretara behartuta ez dagoelako, 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Berdintasun planak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko jarduketak aurreikusi ditzake, besteak beste, ondorengo arloetan: okupazioan, sustapen eta prestakuntzarako aukeretan; sailkapen profesionalean; ordainsarrietan; bizitza pertsonala, familiakoa eta lana bateragarri egiteko lanaldiaren antolaketan; eta jazarpen sexualari eta sexu arrazoiarengatikoa aurrea hartzeko zereginean. PLAN HORI SEI HILABETEKO EPEAN egin behar da kontratua sinatzen den egunetik kontaktzen hasita, aipatutako lege organikoan ezarritako edukiarekin.
2. Aplikagarria den lan hitzarmenean ezarritako lan baldintzak zorrotz aplikatuko direla bermatu beharko die enpresa esleipendunak kontratu honen exekuziora atxikitako langileei.
3. Enpresa esleipendunak bermatu beharra du kontratuari atxikitako langileek etengabeko prestakuntza jasoko dutela beraien lanpostuari dagozkion lanak betetzeko, eta prestakuntza gabeziak antzemateko sistema eta prestakuntza garatzeko estrategia izango dituen KALITATE PLAN bat aurkeztu behar du, . PLAN hori aurkezteko SEI HILABETEKO epea izango da kontratua sinatzen den egunetik kontaktzen hasita. Enpresa esleipenduna prestakuntzarako gutxieneko orduei buruzko akordio batera iritsi beharko da Udalarekin.

4. Langileen biziari, osotasunari eta osasunari eragin diezaioketen arriskuei modu zorrotzean aurrehartzeko derrigorrezko eta beharrezko segurtasun eta higiene neurriak hartu behar ditu enpresa esleipendunak. Era berean, lan arriskuen prebentziorako indarrean dauden arauk ezarritako betebeharrak ere bete beharko ditu, eta ondorengo betebeharrak betetzen dituela egiaztatu beharko du:
 - Kontratututako jarduerari buruzko arriskuak ebaluatzea eta prebentzio jarduera planifikatzea.
 - Kontratuaren helburu den zerbitzua emango duten langileei prebentzio arloan prestakuntza eta informazioa ematea.
 - Beharrezkoak direnean, babes indibidualerako ekipoa entregatu izanaren egiaztakia.
5. Enpresa esleipendunak kontratua exekutatzeko kontratatu beharreko langile berriak langabezia-egoera legalean egon beharko dira.
6. Kontratu honen exekuzioarekin lotuta kontratistak egindako idatzizko komunikazioetan 100 %ean birziklatutako eta erabat klororik gabeko (TCF) papera erabili beharko da (kontsumo ondorengo zuntz edukia, \geq %65).
7. Makineria. Kontsumo eta isurpen aldetik, ahalik eta eraginkorrenak izan beharko dira. Ibilgailuek ahalik eta gehien murriztuko dute ingurumen eragina: ibilgailu berriek indarrean dagoen EURO estandarra bete beharko dute, eta CO2 isurpenak ere ahalik eta txikiak izango dira, zerbitzua murriztu gabe.

Baldintza horiek funtsezko izaera dute kontratuaren betebeharrerako, eta beraz, SPKLTBren 118. artikuluan ezarritakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua erabakitzeko arrazoia izan daiteke 223 f) artikuluan aipatutako ondorioetarako.

16. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete beharko ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira. Bereziki, sektore horretan Gipuzkoan indarrean dagoen lan hitzarmeneko edo, hala badagokio, hori berraztertuko duten ondorengo lan hitzarmenetako baldintzak aplikatu beharko ditu, bere erantzukizuneko, eta ez bete inorena, izanik lan istripuekin lotutako guztia.

Gainera, esleipendunak gaur egun zerbitzu hori ematen duten langileak hartu beharko ditu, eta aurreko esleipendunak zituen eskubide eta lan betebeharretan subrogatuta gelditzen da. Hartu beharreko langileen artean daude ere titulartasun aldaketaren unean aldi baterako ezintasunean, amatasunagatiko lizentzia-aldian, behin-behineko ezgaitasun egoeran, eszedentzian edo oportretan daudenak. Baldintza agiri honen **I ERANSKINEAN** zerrendatzen dira azpikontratitzen diren zerbitzuak eta zerbitzura atxikitako pertsonak beraien hitzarmen, soldata, antzinasun eta abarrekin.

17. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratastak izango du kontratua betetzean burutzen diren ekintzen ondorioz eragiten diren kalte galeren gaineko erantzukizuna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, eta behin-behineko esleipena jakinarazten zaionetik 15 egun naturaleko epean aseguru polizaren kopia eta hori ordaindu dela egiaztatzeko agiriren bat aurkeztu beharko du. Aseguruaren gutxieneko berme muga 600.000 eurokoa izango da eta kontratuari atxikitako arriskuak estaliko ditu, bereziki, erantzukizun zibila hirugarren pertsoneri kalterik eragiten badiete langileek, enplegatuek eta mendekoek, hala iraunkorrek nola lantzean behingoeak, eta horien makineriak eta ekipoeak, eta baita esleipenaren gaia diren obrak exekutatzeko lanek sortutako kalteak ere.

18. DATU PERTSONALAK

Kontratutako zerbitzuei buruz enpresa esleipendunak jakin dakizkien datu guztiak dira konfidentzialak, eta horien izenak eta sekretua gorde beharko da. Isiltasun profesionala izateko betebeharra ez betetzeagatik sortutako kalte eta galerak direla-eta kalte-ordaina emango die esleipendunak Udalari eta horiek jasan dituzten pertsoneri.

Kontratua betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen tratamendu automatizatuko datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendu Automatizatua arautzen duen 5/1992 Lege Organikoan xedatutakoa betez erabiliko ditu enpresa esleipendunak.

Enpresa esleipendunak ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratua dela-eta lortutako datu pertsonal automatizatuak kontratuan agertzen den helburua ez den beste helburu baterako, eta ezingo dizkie datu horiek laga beste pertsona batzuei, ezta zaintzeko ere.

Kontratu prestazioa bete eta gero, tratatutako datu pertsonalak Udalari eman beharko zaizkio.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiak direla-eta kontratua aldatzea izango du Udalak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta moduan.

20. LANA ONARTZEA ETA GARANTIA EPEA

Kontratuaren xede den lana bukatu ondorengo 15 eguneko epean lanaren onarpen ekintza formala eta positiboa egingo da, zerbitzuaren behin betiko txostena emanez.

Era berean, onarpen formalaren egunetik hasita bermetzat finkatutako hilabeteko epea egongo da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta Lege horretako Erregelamendu Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme epe horretan kontratastaren kargu joango dira lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

Epe hori igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratastaren erantzukizuna amaitu egingo da.

Edozelan ere, bermea itzultzeko ezinbesteko baldintza izango da kobratu eta sortutako zerga likidazioei buruzko erabaki gabeko errekurtsorik ez izatea kontratu honetan emandako zerbitzuen eremuan.

21. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK HONAKO HAUEK EZ BETETZEAGATIK

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko 22. baldintzan ezarritako diru-zigorra ezartzea.

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta exekuzioarekin aurrera egitea erabakitzeko.

B) PRESTAZIOAK PARTZIALKI BURUTZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen exekuzio partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea, bermea galduta, edo 22. baldintzan jasotako zigorrak ezartzea.

22. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Esleipendunak egindako hutsegiteak honela zigortuko dira:

- Hutsegite arinak 60tik 150 euro arteko isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urte batean 15 hutsegite eginez gero.

- Hutsegite larriak 150etik 300 euro arteko isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urte batean 10 hutsegite eginez gero.

- Hutsegite oso larriak 301etik 450 euro arteko isunaz zigortuko dira eta behin betiko bermea galtzea ekarriko du. Gainera, hutsegite oso larritzat kalifikatutako b) eta c) hutsegiteak izanez gero, kontzesionarioak zenbateko bereko beste berme bat jarri beharko du edo kontratua hautsiko da.

Zigorrez gain, kontzesionarioak kalte-ordain bat ordaindu beharko dio Udalari. Kalte-ordain horren zenbatekoa egin ez den zerbitzuari buruz, aplikatu ez diren bitartekoei buruz eta abarrei buruz egindako balorazioarena izango da.

Ezarritako isunen zenbatekoa hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik, edo jarritako bermetik.

a) HUTSEGITE ARINAK

Hutsegite arinak hauek izango dira:

1.- Zerbitzuak ematean akatsak izatea, baina, ez behin eta berriro (lanen kalitateari, baliabide nahiko ez izateari, materialaren egoerari eta mantentzeari, lanen exekuzio erritmoari, Udalbatzaren edo Udaleko Zerbitzu Teknikoen aginduak ez betetzeari buruz, zuzendaritza, ikuskapen eta kontrol eskumenak erabiltzean, lan programan aldaketak izatea eta abar) eta urte natural bakoitzean 4 bider baino gehiagotan zigortu ez izana.

2.- Adierazitako orduetan zerbitzuak ematen hastean atzeratzea, baina ordubetetik gora ez, hilabete batean birritan edo urte bakoitzean hamar bider baino gehiagotan

3.- Edozein zerbitzu eten duela ez adieraztea Udalari, edozein izanik haren kausa eta, betiere, urte natural bakoitzean 4 bider baino gehiagotan gertatzen ez bada.

4.- Uniformetasun falta edo urritasuna zerbitzuak ematen dituzten langileen artean, uniformeak egiteko erabilitako materiala dela-eta horiek itxura eta egoera txarrean egoteagatik, betiere, uniformetasun falta edo urritasunak 48 orduko epean zuzentzen baditu kontratistak, ikusitako gabezia edo akatsaren berri ematen diotenetik.

5.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzeko.

6.- Arduraduna ez egotea aurkitzeko moduan edo zerbitzu orduetatik kanpo agindu beharreko lanei kasurik ez egitea, betiere, urte natural bakoitzean 4 bider baino gehiagotan gertatzen ez badira.

7.- Informazioarik ez bidaltzea edo lan-orriak atzerapenez bidaltzea, kontratistak nahitaez egin eta bakoitzarentzat ezarritako maiztasunez aurkeztu beharreko txostenak izanik horiek; betiere, urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiagotan gertatzen ez badira.

b) **HUTSEGITE LARRIAK**

Hutsegite larriak hauek izango dira:

1.- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea.

2.- Kontratistak bete ez izana legezko edo arauzko xedapenek ezarritako baldintzak, indarrean dagoen hitzarmena, eskatutako aseguruak, ingurumen legeak, segurtasun elementuak eta neurriak, laneko betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta segurtasun eta higienekoak, zerbitzuari atxikitako langileekiko eta makinariarekikoak eta abar.

3.- Agirietan edo bere eskaintzan adierazitako gainerako baldintzetako edozein ez betetzea kontratistak.

4.- Zerbitzuak ematean akatsak egitea behin eta berriro.

5.- Kontratatari formalki ohartarazi eta gero, osasun preskripzioa gorde ez izana edo osasungaitz, arriskugarrtasun edo erosotasun egoerarik ez izateari buruzko aginduak bete ez izana.

6.- Kontratatari emandako aginduak behin eta berriro desobeditzea zerbitzugintzaren antolamenduari, erari eta erregimenari dagokienez, edo egoera txarrean dagoen oinarritzko materiala berriro ez jartzea edo konpontzea.

7.- Langileen aldi baterako ezintasun kasuen berri ez ematea 24 orduko epean.

8.- Aldizkako lan-orriak edo txostenak faltsutzea.

9.- Plantila aldatzea aldez aurretik Udalari adierazi barik.

10.- Makineria edo instalazioak egoki ez mantentzea.

11.- Kontzesioaren helburu diren zerbitzuak Udalak fiskalizatu eta kontrolatzeari ukatzea edo zeregin horietarako trabak jartzea.

12.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari atxikitako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.

c) **HUTSEGITE OSO LARRIAK**

Hutsegite oso larriak honako hauek izango dira:

- 1.- Kontratutako zerbitzuak ematen ez hastea baldintza agiri honetan ezarritako epe barruan, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- 2.- Kontratutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- 3.- Zerbitzuak emateko eran iruzurra egitea, baliabide egokiak edo eskatutako oinarritzko elementuak erabili ez direlako, edo zerbitzuari atxikitako materialen bat desagertu izana.
- 4.- Kontratatutako edo haren enplegatuek edozein ordain edo mesede jaso izana partikularrengandik edo zerbitzuaren erabiltzaileengandik.
- 5.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

23. BIRKONTRATAZIOA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 227. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskatutako baldintzak betetzearen menpe, esleipendunak beste batzuekin hitzartu ahal izango du kontratua zati batean egitea, gehienez ere esleipen prezioaren %40ra arte.

Birkontratazioa egiteko baldintza izango da egin beharreko birkontratazioaren berri idatziz ematea Administrazioari, eta bertan jasotzea birkontratutako enpresak kontratuaren zein zati egingo duen.

24. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK

Kontratua suntsitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

25. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz, Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

26. HIZKUNTZ BETEBEHARRAK.

26.1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta 2011ko irailaren 21eko osoko Bilkuran onartutako "2011-2015 agintaldirako Eskoriatzako Udalaren Hizkuntza Politika" dokumentuan.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

26.2.- Enpresak komunikazio orokorren bat egin behar badu herritarrentzat, (oharrak, seinaleak...) piktogramak erabiliko ditu euskarazko azalpen mezuarekin ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde zuzenetik adostuta.

26.3 Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak eta abar) administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da, euskaraz, eta horrela onartuz gero, hizkuntza bietan.

26.4 Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

IV.- IZAERA, ERREJIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA.

27. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio izaera izango du, eta bertan zehazten ez den guztirako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean, eta herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoetan ezarritako arauak bete beharko dira.

Administrazio baldintza partikularren agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik sortutako auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikziopean geratuko dira; hala ere, eta indarrean dagoen legeriaren arabera, aldeek akordio bat egin dezakete bitartekaritza onartzeko.

Kontratazioari buruzko errekurtsio berezia jarri daiteke Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuko 40.2 artikuluan aipatzen diren erabakien aurka, Testu Bateratu horretako 44. artikuluan adierazitako hitzetan, baldintzetan eta epeetan.

Errekurtsioaren erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

1, 2, 3, 4 eta 5 ERANSKINAK

1 ERANSKINA.- LANGILEEN KOSTUEN TAULA

Maila	Urteko lan egunak	Urteko ordu kopurua	Ordutegia	Urteko kostua	Kostua Gastu orokorrekin eta etekin industrialarekin	Kostua, BEZ barne
	Adierazi urtean 12 hilabete egiten dituen edo zati bat			12 hilabete egiten baditu, kostu horretan oporraldirako ordezkapena sartuta egongo da.		

2 ERANSKINA.- MAKINARIA KOSTUEN TAULA

Makineria-tresnak	Marka eta modeloa	Zerbitzura atxikia. Berria edo Udalarena	Zerbitzura ez atxikia. Egunak urteko	Erregai, konponketa, aseguru eta abarreko gastuak	Finantzazioa	Amortizazio urteak	Amortizazioa	Kostua Gastu orokorrekin eta etekin industrialarekin	Kostua, BEZ barne

3 ERANSKINA.- INSTALAZIOEN ETA BALIABIDE KOMUNEN KOSTUA

	Urteko kostua	Kostua Gastu orokorrekin eta etekin industrialarekin	Kostua, BEZ barne
Instalazioak			
Instalazioen mantentze gastuak			
Komunikazio sistemak			
Erantzukizun zibileko aseguruak			
Arropa, ekipoak			
.....			

4 ERANSKINA.- HOBEKUNTZEN KOSTUA

Aurkeztutako hobekuntzak	KALKULATUTAKO KOSTUA

5 ERANSKINA.- KANONETIK KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUEN KOSTUA

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES DE CONTRATO DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO Y TRAMITACION ORDINARIA. CONTRATO SUJETO A REGULACION ARMONIZADA.

SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES)

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la prestación del **SERVICIO DE DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES)** y el fomento de empleo entre la población parada o en riesgo de exclusión social, todo ello **bajo métodos y prácticas que garanticen unas condiciones laborales dignas y promuevan la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres**, en las condiciones determinadas en el Pliego de Prescripciones Técnicas, en el presente Pliego y en la oferta que resulte adjudicataria del contrato.

Codificación C.P.V.: 90611000-3

2. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución de la prestación será de DOS años, contados a partir del siguiente día hábil al de la firma del contrato, siendo susceptible de prórroga expresa y mutuamente acordada por otros dos periodos de UN AÑO, sin que la duración total del mismo pueda exceder de CUATRO años.

La empresa contratada se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

3. PRECIO DEL CONTRATO

El precio del contrato para el primer año, IVA excluido, será de 149.804,53 €, cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por los licitadores.

El presupuesto estimado para la globalidad del contrato, incluidas prórrogas, si se produjeran, es de 606.901,54 €, IVA excluido.

Una vez adjudicado el contrato, en el precio se entenderán incluidos todos los gastos e impuestos que se ocasionen como consecuencia de la prestación del servicio.

4. CONDICION SUSPENSIVA DE EXISTENCIA DE CREDITO

De acuerdo a lo previsto en el artículo 110.2 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, se condiciona la adjudicación del presente contrato a la existencia de crédito adecuado y suficiente para hacer frente a las obligaciones derivadas del mismo durante el ejercicio presupuestario 2014.

